

HIZKUNTZ INKLUSIBOA. LENGUAJE INCLUSIVO.

EUSKARA



KOMUNIKAZIO INKLUSIBOA

Hizkuntza ikasten eta irakasten den eraikuntza soziala da. Hizkuntzaren bidez antolatzen dugu gure pentsaera eta mundua ikusteko era.

Maiz aipatzen da euskara ez dela hizkuntza sexista, izan ere, ez du genero-markarik eta beraz emakumeak ez dira hain ikusezinak hizkuntzan. Hala ere, hizkuntza guztietan bezala bi fenomeno gertatzen dira:

1.- Androzentrismoa: gizonezkoak erreferentzia-gunetzat hartzen da eta emakumezkoak era batera edo bestera ezkutatzea.

2.- Sexismoa da bi sexuen tratamendu estereotipatua. Hizkuntzan, bereziki, emakumeen aurkako sexismoa ikusten da.

ERABILPEN ANDROZENTRIKOAK ETA HORI SAIHESTEKO GOMENDIOAK

Hizkuntza alda daiteke eta, berez, etengabe ari da aldatzen. Horregatik euskarazko erabilpen sexista eta androzentista arruntenak deskribatuko ditugu horiek saihesteko proposamenak emanez.

- “Gizon” hitzaren erabilera espezifikoa: erabiltzen da gizonak bakarrik izendatzeko eta baita gizonak eta emakumeak izendatzeko ere.

- “Gizon “ hitza hitz elkartuetan: lege- gizona, enpresa-gizona, kultur gizona...

Esanahi espezifikoa baldin badute erabilpen egokia izango litzateke, baina talde anitz baten erreferentzia edo genero ezagutu gabeko pertsona bati aldatu beharko litzateke beste irtenbideak bilatuz.

- “Giz” erroaren erabilera generikoa: gizakia, gizarte, gizabidea... Beste termino batzuk erabiltzea gomendagarria izango litzateke. Proposamen honek eztabaidak sortu ditu baina hitzunez aldatzen dituzte hizkuntzak eta beste horien ordez beste hitz batzuk gero eta gehiago erabiltzen ari dira.

- Bestelako erabilera generikoak. Esaldi batzuetan ikuspegi androzentrikoa islatzen da eta ematen du mundua gizonek bakarrik osatzen dutela.

Adbidez:

*** Frantziako Iraultzaren ondorioz sufragio unibertsala ezarri zen. (emakumeek, zoritxarrez, beranduago lortu zuten botoa)**

*** Atenastarrek bozketaren bidez aukeratzen zituzten ordezkooak. (kasu honetan egokiagoa da “Gizon atenastarrak “ esatea , emakumeek eskubide hori ez zutelako)**

- Generoa daukaten izenak: Bai animalietan (behorra/zaldia) eta baita pertsonen ere (alaba/semea). Maiz, gaztelaniaren eragina dela medio, pluralean edo izen maskulinoak erabiltzen dira eta hori gainditzeko ere proposamenak daude.

- “Anaia” hitzaren eratorrien erabilpena: errealitate maskulinoari egiten dio erreferentzia, baina hitzaren eratorri batzuk zentzu generikoan erabiltzen dira: anaitasun, anaiarte, anaikide...

- Euskararen soberan dauden estrategiak: zuzentasunaren bila euskal hiztun batzuek erabiltzen dituzte behar ez diren estrategia batzuk .

*** “Programa populazio erretzailearentzat eginda dago”. Nahiko da jartzea: Programa erretzaileentzat egina dago.**

Irakaskuntzan maiz erabiltzen dugu irakaslego-ikaslego edo irakasleria-ikasleria kontutan hartu gabe irakasleak-ikasleak hitzek ez daukatela genero-markarik eta ez ditugula zertan ordezkatu.

* “ sa “ atzizkia erabili ohi dugun zenbait hitzetan: aktorea, printzesa... Euskarak ez duenez generomarkarik, ez dira atzizki hauek erabili behar.

HITZAK EZ OSO EGOKIAK

EGOKIAGOAK

Hor bost mila gizon bizi dira.....	Hor bost mila pertsona...
Lege -gizona.....	Legelaria.
Enpresa- gizona.....	Enpresaria.
Kultur-gizona.....	Kultur pertsona
Itsasgizona.....	Itsaslangilea.
Gizakia.....	Pertsona/Jende
Gizarte.....	Jendarte
Giza-katea.....	Jende-katea
Batzarra.....	Asanblada/bilera.

ERABILERA SEXISTAK ETA HORIEK SAHIESTEKO GOMENDIOAK

- Asimetria lexikoan. Emakumeei dagozkienak esanahi ezkorra dutenez, hobe ez erabili:

Agure-atso(gutxiespenezko zentzua)

Zakila-alua (iraingarriagoa).

-Andereñoa:

Emakume ezkongabea eta ikastoletako maistra. Adiera hau baztertu beharko litzateke. IRAKASLE, erabil daiteke, bi generoak izendatzeko.

-Gizona eta gizon portatu:

Gizona, adorea, ausardia duena omen da Euskal hiztegian.

Gizon portatu beharrean: behar bezala, ezin hobeto, primeran, erabiliko ditugu zuzenago.

-Neska eta emakume irain moduan:

Beti txutxu-mutxuka, emakumeak bezala!

Emakumeak gutxietxi eta esteretipoak zabaltzen ditugu, beraz, baztertu beharko ditugu termino horiek.

-Emakumeen aipamen asimetrikoak:

Emakumeak maiz aipatzen dira gizonekin duten harremanaren arabera, emazteak, andregaiak, alabak. Adibideak:

-Mendian bi andaluziar eta bere emazteak ezagutu genituen.

Egokiago: Bi bikote andaluziar.

-Beste fenomeno bat:

Gizonak izendatzeko gizon edo jauna

Neska edo emakume izendatzeko bere izena soilik, adingabeak direla dirudi. Adibidez:

Rajoy jauna eta Merkel bildu dira. Rajoy eta Merkel esan ordez.

Hiru gizon eta bi neskek osatzen dute taldea.

Esan beharko genuke:

Hiru mutil eta bi neskek edo hiru gizon eta bi emakume.

-Ordena eta hierarkia:

Euskaraz generoa duten hitz gutxi daude, eta orden jakin batean agertzen dira ia beti:

Neska-mutilak, gizon-emakumeak, seme-alabak...

Akaso arrazoi fonologikoengatik finkatu da erabilera hau, hitz motzenak hasieran.

Komenigarria litzateke ordena aldakorra izatea.

-Esterotipoekin lotuta erabiltzen diren hitz batzuk:

Erne ibili behar dugu, esterotipoak indartzen dituzten hitzekin.

Matraka, pinpirin, kaskarin, panpoxa emakumeentzat (berritsu, txoriburua edo itxura atsegina adierazteko.)

Polita, liraina, apala, delikatua, sentibera emakumeentzat

Sendoa, indartsua, ausarta, bortitza gizonezkoentzat.

-Mari osagaiak gutxiespenezko hitzak sortzen ditu:

Mari-matraka, mari-maistra (agintzen duena), mari-maisu (bere burua jakintsutzat hartzen duen emakumea).

Horrelako erabilerak saihestu beharko lirateke.

-Asimetria mezuetan:

Emakumeak lotzen dira estetikarekin eta izaera pasiboarekin, etxearekin eta familia zaintzarekin. Gizonei adimena eta indarra dagozkie, eta baita mundu publikoa ere. Adibidez:

-Elastikoa zikindu zaizu; lasai, amak garbituko dizu.

-Txirrindula ez dabil ongi; ea aitak konpontzen dizun.

-Etorri hona, Eder hori! Eman musu bat, maitea! A ze nolako zapata politikak!

-Etorri hona, tigre! Eman bostekoa, motel! Zapata sendoak ekarri dituzu ostikada ederrak emateko modukoak!

Horrelako adibideak baztertu beharko genituzke.

-Atsotitzak edo esaera zaharrak:

Misoginia agertzen da hainbat atsotitz eta esaera zaharretan. Hobe sahiestea.

-Alaba baino, semea hobe.

-Ahuntza, atsoa eta emakumea, teman ez ditu inork irabaziko.

-Hego-haizea, andre-haizea edo emakume-haizeak omen dira eta burutik jota egotea da bere esanahietako bat.

IRUDIEN SEXISMOA SAIHESTEKO ZENBAIT GOMENDIO

- Irudietan ezaugarri ezberdinak dituzten pertsonen presentzia baloratu. Ikasleak beste erreferentzia-ereduak eraikiko ditu.

-Bilatu edo sortuko ditugu irudi hauek:

- Emakumea aurkeztu: ardurak hartzen.

Tareak partekatzen.

Kirol ekintzetan.

Abenturan, ekimenarekin, arrakastatsu.

- Gizona aurkeztu: zaintza lanetan.

Emakumezkoen estereotipoari dagozkion jardueretan.